



Ubuntu Linux Inplantatzen Eskolan

Instalazioa + NTP + NIS + NFS + AD + OpenLDAP + APT proxy-a

Bertsioa: 2.0

Egilea:
Alfredo Barrainkua Zallo

Data:
2008.eko Urtarrilak 30

Lizentzia:
CC-BY-NC-SA



Lizentzia laburpena: [English](#) [Castellano](#)



Edukien aurkibidea

1. Sarrera.....	4
2. Lehen Instalazioa.....	4
3. Ordua, Ordua, Ordua!.....	6
4. root eta SSH.....	7
5. Paketeen Errepositorio Proxy edo Katxeak.....	8
5.1. apt-proxy.....	8
5.2. apt-cacher.....	9
6. NFS eta NIS Zerbitzariak.....	10
7. NFS eta NIS Bezeroak.....	11
8. Active Directory Bezeroa.....	12
8.1. Kerberos.....	12
8.2. Samba.....	12
8.3. Taldeak eta HAL.....	13
8.4. Unidades de red.....	13
8.4.1. Ubuntu 7.10, Gutsy.....	14
8.5. Nsswitch.....	14
8.6. PAM.....	14
8.7. Sudo.....	15
8.8. Ordu sinkronizazioa.....	15
8.9. Domeinura!.....	15
8.10. Ubuntu 7.10, Gutsy-rekin arazoak.....	16
8.10.1. Winbind.....	16
8.10.2. pam_mount.conf.....	17
9. OpenLDAP bezeroa.....	17
10. Zenbait aldageta /etc/fstab fitxategian.....	18
11. Ubuntu eta Windows.....	19
12. Bitxikeriak.....	20
12.1. Firefox-en bilatzaileak.....	20
12.2. Firefox-i jarri proxya erabiltzaile guztientzat.....	20
12.3. Firefox-en eskolako lastermarkak pertsonalizatu.....	20
12.4. Flash plugina instalatu Firefox-en (Ubuntu 7.10, Gutsy).....	20
12.5. Gehitu AD direktorioa Thunderbird-era.....	21
12.6. Instalatu zuzentzaile ortografikoak Thunderbird-en.....	21
12.6.1. Errorea Ubuntu 7.10ean.....	22
12.6.1.1. Eskuz instalatuak.....	22
12.6.1.2. Era zuzena Ubuntu 7.10, Gutsy-n.....	22
12.7. Instalatu euskarazko zuzentzaile ortografikoa OpenOffice-rentzat.....	22
12.7.1. Era zuzena Ubuntu 7.10, Gutsy-n.....	22
12.8. KompoZer instalatu Ubuntu 6.06, Dapper-en.....	22
12.8.1. Ubuntu 7.10, Gutsy.....	24
12.9. Geogebra instalatu.....	24
12.10. Arduino instalatu (Ubuntu 7.10, Gutsy).....	25
12.11. Tipografia mota ezberdinak.....	26
12.12. F10 kendu terminaletik.....	26
12.13. Brasero eta LigthScribe.....	26
12.13.1. Ubuntu 7.10, Gutsy.....	26
12.14. Desktop-Multiplier.....	27
12.15. Mahai gaineko efektuak (Ubuntu 7.04, Feisty).....	28
13. Windows aplikazioak: Wine (Ubuntu 6.06).....	28
13.1. Hasierakoak.....	28
13.2. Aplikazioak.....	29
13.2.1. IrfanView (Erregistro gabe).....	29
13.2.2. Proteus (Erregistroa inportatuz).....	30
14. Instalazio Azkarrak.....	36



14.1. Instalatzailean sartzeke.....	56
15. Hardware berria / Hardware arazoak.....	56
15.1. Arbel digitala.....	56
15.1.1. Ubuntu 6.06, InterWrite 1.00.0006 eta RS-232 konexioa.....	57
15.1.2. Ubuntu 6.06, InterWrite 3.03.0003 eta RS-232 konexioa.....	57
15.1.3. Ubuntu 6.06, InterWrite 4.00.0008 eta RS-232 konexioa.....	58
15.1.4. Ubuntu 7.10, InterWrite 4.00.0008 eta RS-232 konexioa.....	58
15.1.5. Ubuntu 7.10, InterWrite 4.00.0008 eta Bluetooth konexioa.....	58
15.1.6. Ubuntu 7.10, InterWrite 4.00.0008 eta USB konexioa.....	59
15.2. Skannerrak.....	59
15.2.1. EPSON Perfection 1200S (SCSI) (Ubuntu 7.04, Feisty).....	59
15.3. UPSak.....	59
15.3.1. APC Back-UPS ES 350 UPSa (Ubuntu 7.10, Gutsy).....	60
16. Egiteke.....	60
17. Egilea.....	61



1. Sarrera

Etorkizunean, Linux instalatu beharra izango dugu gure eskoletan. Honek, zenbait arazo ekarriko dizkigu, eta bi baldintza bete beharko dira. Lehenengoa: Hainbat makina izan behar ditugu, instalazio berdinarekin eta eguneratuta. Bigarrena: Sarera konektatuta behar dute egon, eta erabiltzaileen errekurtsoak, edozein tokitatik eskuragarri izan behar ditugu. Hau da, Ubuntu sistemek, Windows-en pareko funtzionalitatea izan behar dute sarean.

Hau lortzeko era asko daude. Txosten hontan, horietariko batzuk azaltzen dira. Eskola barneko errepositorio bat eta script bat erabiliko dugu instalazioak gauzatzeko. Skript bat erabiliko dugu baita, ordenagailuak konfiguratzeko.

Dokumentuak edozein ordenagailutan eskuragarri edukitzeko, **Samba** eta **NFS** erabiliko dugu. Erabiltzaileak autentifikatzeko. **NIS Active Directory** eta **OpenLDAP** erabiliko ditugu.

Ubuntu 6.06, 7.04 eta 7.10 Linux banaketak erabiliko ditugu bezero bezala. **NIS** eta **NFS** zerbitzariak, **SUSE Linux 9.3** sistema batean izango dira. Active Directory domeinu kontroladorea **Windows 2000 Server** izango da. Ordu zerbitzaria, Windows domeinu kontroladorea izango da ADren kasuan eta **ntp.nire-eskola.net** besteetan. Errepositorio bezala jarriko dugun makina, **apt.nire-eskola.net** izango da.

NFS eta NIS zerbitzariaren helbidea 172.16.2.8 izango da. NIS domeinua NIRE-ESKOLA izango da. NFS zerbitzariak, 172.16.0.0/24 eta 172.16.2.0/24 sareetako konexioak onartuko ditu. Gure ordenagailuaren izena, **UBPC01** izango da.

2. Lehen Instalazioa

Instalazioa, Ubuntu 6.06, 7.04 edo 7.10 Desktop bertsioa erabiliaz egingo dugu. Instalazioa, modu arruntean egingo da, eta gero egokituko dugu gure sarera. Instalazioa bera ez dugu azalduko. Esan behar soilik, instalaziorako aukeraturiko hizkuntza **Euskera** izan dela, baina horrek ez du baldintzatuko gure azken konfigurazioa.

Batzuetan arazoak daude instalazioan Windows kontuak migratzerakoan eta eskegita geratzen da. Migrazioa ez egiteko, terminal bat zabaldu, eta instaladorea, hemen agertzen den bezaka egikaritu:

```
sudo ubiquity -no-migration-assistant -desktop %k gtkui
```

Defektuzko hizkuntza Euskara da. Gero, ez bada hori posible, Gaztelera erabiliko da, eta azkenik Ingelesa. Hau gauzatzeko, Terminalean egikaritu:

```
sudo echo "LANGUAGE=eu_ES:eu:es_ES:es" >> /etc/profile
```

Gero, hainbat programaren lengoiaia paketeak instalatu behar ditugu. Laguntzaren lengoiaia paketeak ere instalatu behar dira. Bai GNOMErentzat, bai KDErentzat. Hortarako, Ubuntu errepositorio **GUZTIAK** gaituko ditugu.

Synaptic erabiliaz, behar ditugun pakete guztiak eta baita, euren dokumentazio paketeak, instalatuko ditugu. Gure kasuan, egin dugun instalazio pertsonalizatuan, defektuzko paketez gain, hauek ere instalatuko ditugu:



GNOME, KDE, Firefox eta OpenOffice hizkuntza eta laguntza paketeak:

- kde-i18n-es
- kde-i18n-eu
- khelpcenter
- language-pack-es
- language-pack-eu
- language-pack-gnome-es
- language-pack-gnome-eu
- language-pack-kde-es
- language-pack-kde-eu
- language-support-es_es
- language-support-eu
- mozilla-firefox-locale-es
- mozilla-firefox-locale-eu
- openoffice.org-help-es
- openoffice.org-l10n-es

Zenbait heziketa aplikazio:

- kalzium
- kmpplot
- kstars
- ktouch
- kverbos
- octave
- genius

Thunderbird, Dia, Planner, Inkscape, Scribus, Tomboy...:

- beagle
- dia
- dia-gnome
- gpaint
- gthumb
- inkscape
- istambul
- mozilla-thunderbird
- mozilla-thunderbird-enigmail
- mozilla-thunderbird-locale-es
- mozilla-thunderbird-locale-eu
- planner
- scribus
- scribus-template
- tomboy

Programazio paketeak:

- anjuta
- bluefish
- gambas
- gcc
- glade-gnome-3
- automake
- autogen

Diseinu eta marrazketa paketeak:

- blender
- kicad
- gnusim8085
- gpsim
- qcad
- qcad-doc
- drawtiming



Wine ssh, ...

- gnupg
- khexedit
- lm-sensors
- mc
- openssh-server
- sensord
- sensors-applet
- smbfs
- openssh
- sshfs
- wine
- xaos

Zenbait plugin eta joku:

- 3dchess
- flightgear
- gstreamer0.10-plugins
- gstreamer0.10-plugins-bad
- gstreamer0.10-plugins-ugly
- gstreamer0.10-plugins-bad-multiverse
- gstreamer0.10-plugins-ugly-multiverse
- gstreamer0.10-ffmpeg
- flashplugin-nonfree

Zenbait pakete orokor:

- sysutils
- arj
- unrar
- unzip

Ubunturen errepositorietatik aparte:

- Adobe Reader
- FacturaLUX 2.0
- KompoZer
- Wink

Beste ajuste finak ere egin daitezke. Adibidez: Sarritan instalatu egiten da PCMCIA soportea. Normalean, soilik portatilak dituzte holako busak. Abioan ez egikaritzeko:

```
sudo update-rc.d -f pcmcia remove
sudo update-rc.d -f pcmciautils remove
```

3. Ordua, Ordua, Ordua!

Inportantea! Lehenengo, edozein ordenagailutan, erlojua jarri ondo. Kontutan izan, sare baten gaudela, eta makina guztiak izan behar dutela ordu berdina. Guk, barneko zerbitzari batekin sinkronizatuko ditugu erlojuak. Zerbitzari hori ntp.nire-eskola.net izango da (Adren kasuan, gero aldatuko dugu). Ubuntu ez du defektuz instalatzen ordu zerbitzari ez bezero bat -kasu hontan aplikazio berak egiten ditu bi lanak. Guk instalatu dugu aparte.

```
sudo apt-get install ntp ntp-doc ntpdate
```

Konfiguratzeko, **/etc/ntp.conf** fitxategian, server jartzen duen tokian, hau jarri.

```
server ntp.nire-eskola.net
```



Baita, **/etc/default/ntpdate** fitxategian, hau jarri (Ubuntu 6.06):

```
NTPSERVERS="ntp.nire-eskola.net"  
NTPOPTIONS="-u"
```

Ubuntu 7.04 edo 7.10 erabiltzen badituzu, ez jarri ezer fitxategi honan, **/etc/ntp.conf** fitxategitik hartzen du konfigurazioa eta.

Gero, gelditu **ntp** zerbitzua, **ntpdate** egikaritu, ordua idatzi hardwarean, eta berriz abiarazi ordu bezeroa:

```
sudo /etc/init.d/ntp stop  
ntpdate ntp.nire-eskola.net  
hwclock -w  
  
sudo /etc/init.d/ntp start
```

4. root eta SSH

Komeni da etorkizunean eguneraketak automatikoak egiteko, **root** erabiltzailearen kontua gaituta egotea eta kanpotik erraz sartzeko ahalmena izatea. Gainera komeni zaigu, beste makina batetik, agintean exekutatzea root bezala.

Lehenengo gaitu egingo dugu. Hasieran sorturiko erabiltzaile bezala:

```
sudo su  
passwd
```

Aukeratu nahi den pasahitza.

Orain, aginteak urrunetik egiteko gaitasuna behar dugu. Hortarako SSH erabiliko dugu.

Lehenengoz: Instalaturik ez badago, instalatu SSH zerbitzaria:

```
apt-get install openssh-server ssh
```

Orain, SSH gako bikote bat sortuko dugu. Gakoak, sortzerakoan, ez dugu pasahitzik jarriko. Gako publikoa, makina guztietan jarriko dugu. Gako probatua berriz, gure kudeaketarako zerbitzarian. Hona hemen nola sortu gakoak:

```
ssh-keygen -t rsa
```

Pasaesaldia eskatzen digunean, RETURN sakatu. Honela, ez dugu behar pasahitzik gakoa erabiltzeko. Bi gako sortu ditugu. Publikoa gure direktorioko **.ssh/id_rsa.pub** fitxategian dago, eta pribatua direktorio bereko **id_rsa** fitxategian. Kopiatu egingo dugu gako publikoa, sartu nahi dugun zerbitzarian (**makina**):

```
scp .ssh/id_rsa.pub root@makina.nire-eskola.net:/root/.ssh/
```

Orain, makina hortara sartuko gara, kopiatuko dugu gakoa **authorized_keys** fitxategira, eta baimenak aldatuko dizkiogu.

```
ssh root@makina.nire-eskola.net  
cd .ssh  
cat id_rsa.pub >> authorized_keys  
chmod 600 authorized keys
```



Orain, erabiliko dugun ordenagailuan dagoen gako pribatuari baimenak aldatu behar dizkiogu ere.

```
chmod 600 .ssh/id_rsa
```

Konfiguratu egingo dugu orain, **makina** ordenagailuaren **ssh** zerbitzaria. Konfigurazioa **/etc/ssh/sshd.conf** fitxategian egingo dugu. Soilik onartuko ditugu protokoloaren 2 bertsioaren konexioak. Hurrengo lerroa agertu behar da fitxategian:

```
Protocol 2
```

root erabiltzarileari sartzen utziko diogu. Hortarako:

```
PermitRootLogin yes
```

Gako publikodun konexioak onartuko ditugu:

```
RSAAuthentication yes  
PubkeyAuthentication yes  
AuthorizedKeysFile %h/.ssh/authorized_keys
```

Ukatu egingo ditugu gako publikorik ez daukaten konexioak:

```
PasswordAuthentication no
```

Soilik onartuko ditugu zerbitzarien saretik, eta zerbitzari konkretu batetik sorturiko konexioak. Hortarako **/etc/hosts.deny** fitxategian hau jarriko dugu:

```
sshd: ALL
```

Eta gero, **/etc/hosts.allow** fitxategian, helbideak jarriko ditugu:

```
sshd: 10.22.3 10.22.1.8
```

Inoiz ez bagara sartu makina hontan **ssh** bidez eta gero erabiliko dugun erabiltzailearekin, lehengo eskuz sartu beharra daukagu. Horrela, **known_hosts** fitxategian, urruneko makinaren ssh gako publikoaren hatz-marka sartuko da. Hemen ikusten dugu nola eguneratu **makina** ordenagailuaren Ubuntu sistema:

```
echo "apt-get update" | ssh root@makina.nire-eskola.net  
echo "apt-get -y upgrade" | ssh root@makina.nire-eskola.net  
echo "halt" | ssh root@makina.nire-eskola.net
```

Gauza bera egin dezakegu expect aplikazioarekin.

5. Paketeen Errepositorio Proxy edo Katxeak

Eskola batean, pila bat makina daudenean, ezinezkoa da egunraketak egitea Internetetik. Ez daukagu banda zabalera nahikoa. Horregatik, ezinbestekoa da **proxy** edo **katxe** bat edukitzea eskola barruan. Honela, eguneraketa edo pakete bat behar duen lehen makinak, paketea jeistea itxaron beharko du, baina hurrengoek, katxe hortatik jasoko dituzte paketeak, eta **SAREKO ABIADURAN!**

5.1. apt-proxy

Debian-ek edo Ubuntu, berak du errepositorio proxy bat sortzeko paketea. Hau dela eta, esango diegu mekinei, proxy horri eskatzeko jeitsi behar dituzten paketeak. Proxy-a ez da errepositorioa, baizik eta, gure izenean jaisten ditu paketeak. Gero, beste makina batek eskatzen badio pakete bera, katxeatuta dauka, eta ez du behar Internetetik jeitsi. Instala dezagun proxy-a **ETCH** zerbitzarian:



```
apt-get install apt-proxy
```

Ubuntu bezeroetan, aldatu egingo dugu errepositorio helbidea (es.archive.ubuntu.com), gure proxyaren helbidearekin apt.nire-eskola.net (10.22.1.9). 9999 portura konektatu behar da. Hona hemen adibidea:

```
deb http://apt.nire-eskola.net:9999/ubuntu feisty main restricted universe multiverse
deb http://apt.nire-eskola.net:9999/ubuntu feisty-updates main restricted universe
multiverse
deb http://apt.nire-eskola.net:9999/ubuntu feisty-backports main restricted universe
multiverse
deb http://apt.nire-eskola.net:9999/ubuntu feisty-security main restricted universe
multiverse
```

Gero, **apt-proxy** konfigurazio fitxategian, zein errepositorioetaik jaso paketeak kaxera jarri behar da. Hortarako, `/etc/apt-proxy/apt-proxy-v2.conf` fitxategia editatu behar da. Ubuntu atalean, backends jartzen duen tokian, es.archive.ubuntu.com/ubuntu jarriko dugu.

OHARRA: Mirror horrekin arazoak izan ditut, oso motel doalako. Arazorik baduzu, alemaniako ispiluak jarri: de.archive.ubuntu.com/ubuntu.

Eguneraketak egiteko, **ssh** bidez sar gaitzke ordenagailuetara **root** bezala, eta ... betiko doinua:

```
apt-get update
apt-get upgrade
```

Sistema, automatiza egin dezakegu, gauean, ordenagailu taldeak piztu, eguneratu eta itzaltzeko. Lan hau etorkizunerako utziko dugu.

OHARRA: Kontuz, instalazioa euskaraz egin baduzu. Paketeen datu-basea eguneratzean, **Translation-eu.bz2** eta **Packages-eu.tar.gz** fitxategietan ataskatu egiten da. Onena, ingelesez instalatu, edo bestela hurrengo agintea erabili:

```
unset LANG && aptitude update
```

5.2. apt-cacher

Beste erraminta bat dugu hau. Funtzionamendu era bi ditu honek. Nire probetan, web zerbitzaria deitzea izan da fidagarriena. Erraminta hau Apache web zerbitzarian laguntzen da. Hona hemen bere instalazio eta konfigurazioa.

```
aptitude install apt-cacher
```

Aldaketatxo bat `/etc/apt-cacher/apt-cacher.conf` konfigurazio fitxategian. Hurrengo lerroa honela geratuko da:

```
admin_email=sare-admin@nire-eskola.net
```

Berrabiarazi egin behar dugu Apache.

```
/etc/init.d/apache2 restart
```

Orain bezeroak konfiguratuko ditugu. `/etc/apt/sources.list` fitxategian, hau jarriko dugu:

```
deb http://apt.nire-eskola.net/apt-cacher/archive.ubuntu.com/ubuntu feisty main restricted
universe multiverse
deb http://apt.nire-eskola.netapt-cacher/archive.ubuntu.com//ubuntu feisty-updates main
```



```
restricted universe multiverse
deb http://apt.nire-eskola.netapt-cacher/archive.ubuntu.com//ubuntu feisty-backports main
restricted universe multiverse
deb http://apt.nire-eskola.net/apt-cacher/security.ubuntu.com/ubuntu feisty-security main
restricted universe multiverse
```

Ala. Eguneratzera!

OHARRA: Momentu hontan, **apt-cacher** erabiltzen arin naiz. Niri, hobeto funtzionatzen dit.

6. NFS eta NIS Zerbitzariak

SUSE 9.3 banaketak, NFS zerbitzari bat dauka. Gainera, sistema hortako erabiltzaileak eta taldeak, sare guztian erabili nahi ditugu. Hori gauzatzeko, NIS erabiliko dugu. Instala ditzagun zerbitzari hauek. Gero zerbitzu bezala jarriko ditugu, eta abiarazi.

```
yast --install nfsserver ypserv
chkconfig nfsserver on
chkconfig ypserv on
/etc/init.d/nfsserver start
/etc/init.d/ypserv start
```

Orain, konfiguratu egingo dugu NFS. Taldeen kontuak, **/taldeak** direktorioan ditugu. Erabiltzaileen direktorio pertsonalak berriz, **/home** direktorioan. Edozein makinatetik erabiltzeko, esportatu egin behar ditugu. Hurrengo hau jarri **/etc/exports** fitxategian:

```
/home 172.16.0.0/24(rw,root_squash,sync) 172.16.2.0/24(rw,root_squash,sync)
/taldeak 172.16.0.0/24(rw,root_squash,sync) 172.16.2.0/24(rw,root_squash,sync)
```

Berrabiarazi egingo dugu zerbitzua:

```
/etc/init.d/nfsserver restart
```

Orain NIS zerbitzua konfiguratuko dugu. Konfigurazioa instalatzerakoan egiten du SUSE-k. Denaden, erreparasatu egingo dugu hemen. Lehenengo, **ypserv.conf** fitxategian aldagai hauek hola egon behar dute:

```
dns: no
files: 200
```

/var/yp/ypservers fitxategiak hau eduki behar du:

```
oiz.iurreta-institutua.net
```

/avr/yp/securenets fitxategiak berriz, hau eduki behar du:

```
255.0.0.0          127.0.0.1
255.255.255.0     10.22.0.0
255.255.255.0     10.22.1.0
255.255.255.0     10.22.2.0
```

Orain berrabiarazi egingo dugu zerbitzua:

```
rcypserv restart
```

Gero, NIS datubasea hasieratu behar dugu:

```
/usr/lib/yp/ypinit -m
```



Kontutan izan, erabiltzaileak edo taldeak aldatzen ditugun bakoitzean, berregin egin behar dugula NIS datubasea. Honela egingo dugu:

```
make -C /var/yp
```

7. NFS eta NIS Bezeroak

Ubunturen NFS eta NIS bezeroak behar ditugu instalatu, erabiliko baditugu. Hola egingo dugu:

```
sudo apt-get install nfs-common portmap nis libpam-unix2
```

NIS instalatzerakoan, gure domeinua zein den galdetuko digu. Sartu domeinuaren izena. Gure kasuan NIRE_ESKOLA.

NFS zerbitzariak esportatzen dituen direktorioak, muntatu egin behar ditugu gure sisteman. Hortarako, muntaia puntuak sortu behar ditugu lehenengo. Direktorio pertsonalak **/home** direktorioa muntatuko dira. Hori badago jada. Falta zaigu taldeen karpetak muntatzeko puntua. Hau da: **/taldeak** direktorioa.

```
sudo mkdir /taldeak
```

Direktorioak muntatzeko, mount agintea erabiliko dugu, eta sistema abiaraztean egikarrituko da automatikoki. Gehitu hurrengo lerroak **/etc/fstab** fitxategiari.

```
172.16.2.8:/home /home nfs auto 0 0
172.16.2.8:/taldeak /taldeak nfs auto 0 0
```

Orain berrabiarazi egingo dugu NFS bezeroa.

```
sudo /etc/init.d/nfs-common restart
```

Nire kasuan ez da nahikoa, eta makina berrabiarazi behar dut.

```
sudo reboot
```

Konfigura dezagun NIS bezeroa orain. Konfigurazio fitxategia **/etc/yp.conf** da. Fitxategi hontan jarriko dugu gure NIS domeinua eta NIS zerbitzariaren helbidea. Hemen daukagu nola:

```
sudo echo "domain NIRE-ESKOLA server 172.16.2.8" > /etc/yp.conf
```

Defektuzko domeinua NIRE_ESKOLA dela esango diogu:

```
sudo echo "NIRE-ESKOLA" > /etc/defaultdomain
```

Orain **/etc/passwd**, **/etc/shadow**, **/etc/gshadow** eta **/etc/group** fitxategiak aldatu behar ditugu. Adieraziko dugu aldaketa hauekin, erabiltzaile eta talde gahiago daudela beste nonbaiten. passwd fitxategiaren azkenean, eduki hau jarriko dugu: '+::::::', shadow fitxategian: '+::::::' eta group eta gshadow fitxategietan: '+:::'. Hola egingo dugu:

```
sudo echo "+::::::" >> /etc/passwd
sudo echo "+::::::" >> /etc/shadow
sudo echo "+:::" >> /etc/group
sudo echo "+:::" >> /etc/gshadow ??????????????
```

Orain berrabiarazi NIS bezeroa:

```
sudo /etc/init.d/nis restart
```

EZ DU FUNTZIONATU NAHI !!!!!



SUSEren NIS zerbitzaria eta Ubuntuen NIS bezeroa era ezberdinean konfiguratuz daude. NIS mapak ez dira konpatibleak. Soluzioa, zerbitzariaren mapen generazioaren aldaketa da, baina honek, SUSE bezeroekin inkompatibilitatea sortzen du.

8. Active Directory Bezeroa

Ubuntu Linuxa duen ordenagailu bat sartu nahi dugu gure Windows 2000 domeinura. Windows 2000 domeinuaren izena (Kerberos REALM) **NIRE-ESKOLA.NET** izango da eta lantaldearena (NETBIOS domeinu izena) **NIRESKOLA**. Domeinu kontrolatzailearen NETBIOS eta DNS izena **WINZERBITZARI** izango da. Hortarako, **kerberos**, **samba** eta **winbind** behar ditugu. Instala ditzagun:

```
sudo apt-get install krb5-user libpam-krb5 winbind samba smbfs
```

8.1. Kerberos

Kerberos konfigurazio fitxategia den **/etc/krb5.conf** fitxategiaren edukia, hau izango da:

```
[libdefaults]
    default_realm = NIRE-ESKOLA.NET

    ticket_lifetime = 24000
    kdc_timesync = 1
    ccache_type = 4
    forwardable = true
    proxiable = true

    dns_lookup_realm = false
    dns_lookup_kdc = false

[realms]
    NIRE-ESKOLA.NET = {
        kdc = winzerbitzari.nire-eskola.net
        admin_server = winzerbitzari.nire-eskola.net
        default_domain = nire-eskola.net
    }

[domain_realm]
    .nire-eskola.net = NIRE-ESKOLA.NET
    nire-eskola.net = NIRE-ESKOLA.NET

[logging]
    default = FILE:/var/log/krb5.log
    kdc = FILE:/var/log/krb5kdc.log
    admin_server = FILE:/var/log/kadmind.log
```

8.2. Samba

Samba konfigurazioa, **/etc/samba/smb.conf** fitxategian jarriko dugu:

```
[global]
    netbios name = NIRE-MAKINA
    workgroup = NIRESKOLA
    security = ads
    realm = NIRE-ESKOLA.NET
    password server = winzerbitzari.nire-eskola.net
    encrypt passwords = yes

    winbind use default domain = yes
    winbind separator = +
    winbind enum users = no
```



```
winbind enum groups = no
idmap uid = 10000-20000
idmap gid = 10000-20000

template homedir = /home/%D/%U
template shell = /bin/bash

client use spnego = yes
client ntlmv2 auth = yes

domain master = no
local master = no
preferred master = no
os level = 0

log file = /var/log/samba/log.%m
max log size = 4000
syslog = 0
```

8.3. Taldeak eta HAL

Erabiltzaile lokalak, **audio**, **video**, **plugdev**, **cdrom**, ... taldeetako partaide direnez, errekurtso horiek erabil ditzateke. Domeinuko erabiltzaileak ordea, ez dira talde horietako partaide. Errekurtso horiek erabiltzeko, taldeetako behin bateko partaide egingo ditugu. Hortarako **pam_group** modulua erabiliko dugu. Konfigurazio fitxategia den **/etc/security/group.conf** fitxategian hurrengo hau jarriko dugu (**Juan Luis Goitzen** aportazioa):

```
login;*;*;A10000-2400;users,cdrom,floppy,plugdev,audio,dip
gdm;*;*;A10000-2400;users,cdrom,floppy,plugdev,audio,dip,video,scanner
kdm;*;*;A10000-2400;users,cdrom,floppy,plugdev,audio,dip,video,scanner
```

Sistema honek ongi funtzionatzen du Ubuntu 6.06 eta 6.10ean, baina Ubuntu 7.04 eta 7.10ean huts egiten du **plugdev** taldearekin. **HOT-PLUG** gailuak, orain **HAL** sistemak manejatzen ditu. **HAL** sistemak ez du onartzen **pam_group**. Arazoa segurtasuna da. Horrela, erabiltzaileek ezin dituzte **dbus** sistema erabili. Beraz, **HAL** sistemaren defektuzko politikak aldatuko ditugu. **/etc/dbus-1/system.d/hal.conf** fitxategian, **<policy context="default">** atalean, hurrengo hau jartzen duen tokian:

```
<deny send_interface="org.freedesktop.Hal.Device.Volume"/>
<deny send_interface="org.freedesktop.Hal.Device.Volume.Crypto"/>
```

Hau jarri behar da:

```
<allow send_interface="org.freedesktop.Hal.Device.Volume"/>
<allow send_interface="org.freedesktop.Hal.Device.Volume.Crypto"/>
```

8.4. Unidades de red

Gure eskoletako erabiltzaileek, funtzionaltasun maila batetan ohituak daude. Hau da: domeinuan autentifikatzen direnean, euren zerbitzariko karpeta pertsonala muntatzen zaie, eta baita euren taldeena eta eskolako orokorra. Funtzionalitate maila bera lortu nahi dugu Ubunturekin. Hau lortzeko, **pam_mount** modulua erabiliko dugu. Instalatzeko:

```
sudo apt-get install libpam-mount
```

Orain, **/etc/security/pam_mount.conf** fitxategian egin behar ditugu aldaketatxo batzuk. Lehenengoan, esango diogu kontutan izan ditzala, erabiltzaile bakoitzaren muntaketa bereziak edo pertsonalak. Kontutan izan, gero, erakutsi egin behar diegula erabiltzaileei, nola erabili aukera hau. Hurrengo lerroa, honela geratuko litzateke fitxategi hontan:



```
luserconf .pam_mount.conf
```

Gero, automatikoki muntatuko zaizkigun karpetak jarri behar ditugu. Gure kasuan, pertsonala, taldeen karpeta eta eskolako orokorra. Hortarako, fitxategi honen azkenean, hau jarriko dugu:

```
volume "@usuarios del dominio" smbfs NIRE-MAKINA &$ /home/NIRESKOLA/&/ZERB-&
uid=&,gid=&,dmask=0750,codepage=cp850,icharset=utf8 - -

volume "@usuarios del dominio" smbfs NIRE-MAKINA taldeak$ /home/NIRESKOLA/&/ZERB-taldeak
uid=&,gid=&,dmask=0750,codepage=cp850,icharset=utf8 - -

volume "@usuarios del dominio" smbfs NIRE-MAKINA eskola$ /home/NIRESKOLA/&/ZERB-eskola
uid=&,gid=&,dmask=0750,codepage=cp850,icharset=utf8 - -
```

Karpeta hauek, domeinuko erabiltzaileak diren erabiltzaile guztien muntatuko zaizkie. Gero, erabiltzaile bakoitzak beste karpeta batzuk muntatzeko, adierazi egin behar ditu bere direktorioan dagoen **.pam_mount.conf** fitxategian. Sintaxia ez da berdina. Hona hemen adibide bat:

```
volume alfredo smbfs oiz sarekoak /home/IURRETA/alfredo/OIZ-sarekoak
uid=&,gid=&,dmask=0750,nosuid,nodev,codepage=cp850,icharset=utf8 - -

volume alfredo smbfs oiz web /home/IURRETA/alfredo/OIZ-web
uid=&,gid=&,dmask=0750,nosuid,nodev,codepage=cp850,icharset=utf8 - -

volume alfredo smbfs oiz soft /home/IURRETA/alfredo/OIZ-soft
uid=&,gid=&,dmask=0750,nosuid,nodev,codepage=cp850,icharset=utf8 - -
```

8.4.1. Ubuntun 7.10, Gutsy

Muntaia pertsonaletan, ez ditu onartzen hainbat parametro. Besteak beste, uid, gid, dmask, icharset, etab. Honela jarri behar da orain:

```
volume alfredo smbfs oiz sarekoak /home/IURRETA/alfredo/OIZ-sarekoak nosuid,nodev - -
volume alfredo smbfs oiz web /home/IURRETA/alfredo/OIZ-web nosuid,nodev - -
volume alfredo smbfs oiz soft /home/IURRETA/alfredo/OIZ-soft nosuid,nodev - -
```

8.5. Nsswitch

Sisteman sartzeko, **nsswitch** zerbitzua konfiguratuko dugu. Fitxategia **/etc/nsswitch.conf** da. Hona hemen bere edukia:

```
passwd:          compat winbind
group:           compat winbind
shadow:         compat

hosts:           files dns wins
networks:        files

protocols:       db files
services:        db files
ethers:          db files
rpc:             db files

netgroup:        nis
```

8.6. PAM

Orain autentifikazio moduluak (PAM) konfiguratuko ditugu. 4 fitxategi dira.

/etc/pam.d/common-auth fitxategiaren edukia:

```
auth optional      pam_mount.so
```



```
auth sufficient pam_winbind.so use_first_pass
auth requisite pam_unix.so nullok_secure use_first_pass
auth optional pam_group.so use_first_pass
```

/etc/pam.d/common-account fitxategiaren edukia:

```
account sufficient pam_winbind.so
account required pam_unix.so nullok_secure use_first_pass
```

/etc/pam.d/common-session fitxategiaren edukia:

```
session required pam_mkhomedir.so umask=0022 skel=/etc/skel
session required pam_winbind.so
session required pam_unix.so use_first_pass
session sufficient pam_mount.so use_first_pass
session optional pam_foreground.so
```

/etc/pam.d/common-password fitxategiaren edukia:

```
password sufficient pam_winbind.so
password required pam_unix.so nullok obscure min=6 max=12 md5 use_first_pass
```

/etc/pam.d/sudo fitxategiaren edukia:

```
@include common-auth
@include common-account
```

8.7. Sudo

Windows domeinuko **unixadmins** taldeari, administrazio lanetarako gaitasuna emango diogu. Kontutan izan, taldea sortu behar dugula ADko domeinu kontrolatzailean. Hortarako, **/etc/sudoers** fitxategian, hurrengo hau gehituko dugu azkenean.

```
%unixadmins ALL = (ALL) ALL
```

Orain, Windows domeinuko erabiltzaileentzat sistemak direktorioak sor dtzan, diirektorio bat sortuko dugu, eta baimen guztiak gaituko ditugu. Direktorioaren izena, lantaldearena izango da. Hau da: **NIRESKOLA**.

```
sudo mkdir /home/NIRESKOLA
sudo chmod 777 /home/NIRESKOLA
```

8.8. Ordu sinkronizazioa

Komeni da arazoak ez izateko kerberosekin, AD domeinu batean sartzen badugu gure makina, ordu zerbitzaria domeinu kontroladorea izatea. Horrela ordu berdina izango dute bezeroak eta domeinu kontroladoreak. Beraz, aldatu egingo dugu **/etc/ntp.conf** fitxategia. Hurrengo lerroa agertu beharko da:

```
server winzerbitzari.nire-eskola.net
```

Gelditu **ntp** bezeroa, sinkronizazioa azkarra egin, eta abiarazi ntp zerbitzua.

```
/etc/init.d/ntp stop
ntpdate winzerbitzari.nire-eskola.net
/etc/init.d/ntp start
```

8.9. Domeinura!

Orain, makina domeinura sartuko dugu. Hortarako, domeinuan administrazio eskubideak dituen erabiltzaile kontu bat erabiliko dugu, edo makinak domeinura sartzeko eskubidea duen kontu bat.



Kontu honen izena **winadminizena** izango da. Kontu honen pasahitza eskatuko digu. Lehenengo probatuko dugu ea komunika gaitzkeen Kerberosekin, eta tiketak eskatzeko tiketa ematen digun. Hurrengo hau egikaritu:

```
sudo kinit winadminizena@NIRE-ESKOLA.NET
```

Errorerik ez badu ematen, ikusi egingo dugu ea kerberos tiketik daukagun:

```
sudo klist
```

Itxura ona badu, domeinura sartuko dugu makina:

```
sudo net ads join -U winadminizena@NIRE-ESKOLA.NET
```

Orain, **winbind** zerbitzua berrabiaraziko dugu:

```
sudo /etc/init.d/winbind restart
```

Orain, probatuko dugu ea ikusten diren ADko erabiltzaile eta taldeak:

```
wbinfo -g  
wbinfo -u
```

Dena ongi? Zorionak! Zure Linux makina, Windows domeinuko partaide duzu jada.

Behar bada, komeni zaigu **root** erabiltzailearen kontua gaitzea. Hortarako, gaitu egin behar dugu root erabiltzailea, pasahitza jarriaz:

```
sudo su  
passwd
```

Gainera, root erabiltzailea, grafikoki sar dadin, gdm sisteman baimendu behar dugu espreski. Hau egiteko, **/etc/gdm/gdm.conf** fitxategian, honela geratuko litzateke hurrengo lerroa:

```
AllowRoot = true
```

PAM autentifikazio sistema erabiltzeko, makina berrabiaraziko dugu. Gero, ADko erabiltzaile bezala autentifikatu.

8.10. Ubuntu 7.10, Gutsy-rekin arazoak

8.10.1. Winbind

Domeinuko erabiltzaileak autentifikatzeko, denbora bat itxaron behar da (5 eta 15 minutu bitartean). “**No Logon Servers**” errorea ematen du. **Winbind** berrabiarazten badugu, segituan konpontzen da arazoa. Dena den, erabiltzaile izena edo pasahitza gaizki jartzen baditugu, abisatu egiten du, eta “**wbinfo -u**” edo “**wbinfo -g**” egikaritzen baditugu, ongi zerrendatzen ditu domeinuko erabiltzaile eta taldeak. Diotenez, **avahi**-rekin arazo bat omen da, baina avahi desgaituta ere, arazo bera ematen du. Dirudienez, winbind zerbitzua, makinaren interfazeak martxan jarri aurretik abiarazten da, eta ez du bere lana behar bezala betetzen.

Arazo hau sahiesteko, script baten bitartez, berrabiarazi egingo dugu winbind, sare interfazea altxatzerakoan. Hau gauzatezeko, **/etc/network/if-up.d/** direktorioan, **winbind** izeneko script bat jarriko dugu. Hona hemen bere edukia:

```
#!/bin/bash  
  
/etc/init.d/winbind restart
```




Bainemak eta ugazaba ongi jarriko ditugu:

```
chown root:root /etc/network/if-up.d/winbind
chmod 755 /etc/network/if-up.d/winbind
```

Listo! Dena martxan.

8.10.2. .pam_mount.conf

Muntaia pertsonaletan, ez ditu onartzen hainbat parametro. Besteak beste, uid, gid, dmask, iocharset, etab. Honela jarri behar da orain:

```
volume alfredo smbfs oiz sarekoak /home/IURRETA/alfredo/OIZ-sarekoak nosuid,nodev - -
volume alfredo smbfs oiz web /home/IURRETA/alfredo/OIZ-web nosuid,nodev - -
volume alfredo smbfs oiz soft /home/IURRETA/alfredo/OIZ-soft nosuid,nodev - -
```

9. OpenLDAP bezeroa

OpenLDAP eta **NFS** erabiliko ditugu elkarrekin. NFSrekin, zerbitzariko karpetak muntatuko ditugu bezeroan (NISen kasuan egiten genuen bezala). Autentifikazioa eta autorizazioa OpenLDAP bitartez egingo dugu.

Instalatu egingo ditugu paketeak:

```
sudo apt-get install nfs-common portmap
```

NFS zerbitzariak esportatzen dituen direktorioak, muntatu egin behar ditugu gure sisteman. Hortarako, muntaia puntuak sortu behar ditugu lehenengo. Direktorio pertsonalak **/home** direktorioa muntatuko dira. Hori badago jada. Falta zaigu taldeen karpetak muntatzeko puntua. Hau da: **/taldeak** direktorioa.

```
sudo mkdir /taldeak
```

Direktorioak muntatzeko, mount agintea erabiliko dugu, eta sistema abiaraztean egikarrituko da automatikoki. Gehitu hurrengo lerroak **/etc/fstab** fitxategiari.

```
172.16.2.8:/home /home nfs auto 0 0
172.16.2.8:/taldeak /taldeak nfs auto 0 0
```

Irakasleen direktorio pertsonalak **/irakasleak** bezala esportatzen dira. Makina horietan, irakasleak ere sartzan badira, direktorio hau sortu behar dugu eta hurrengo lerro hau jarriko dugu baita:

```
172.16.2.8:/irakasleak /irakasleak nfs auto 0 0
```

Zerbitzua berrabiaraztearekin ez dut izan nahikoa eta makina berrabiarazi izan behar dut direktorioak muntatzeko.

Orain autentifikatzeko beharrezkoak diren paketeak instalatiko ditugu.

```
sudo apt-get install libpam-ldap libnss-ldap ldap-utils
```

Instalaterakoan, konfiguratzeke eskatzen digute. Dena aurrera eman. Ez ditugu behar konfigurazio fitxategi guztiak. Eskuz aldatuko ditugu behar ditugun konfigurazio fitxategiak. Lehenengo, mugitu egingo dugu **/etc/ldap/ldap.conf** fitxategia **/etc** direktoriara.

```
mv /etc/ldap/ldap.conf /etc/ldap.conf
```

Gero lasterbide bat sortuko dugu, bi fitxategi ez mantentzeko.



```
ln -s /etc/ldap.conf /etc/ldap/ldap.conf
```

/etc/ldap.conf fitxategiak itxura hau izan behar du:

```
HOST 10.22.1.9
URI  ldap://ldap.nire-eskola.net
```

LDAP zerbitzariaren erreplika bat badaukagu, honela gera daiteke lerroa:

```
URI  ldap://ldap.nire-eskola.net ldap://ldap2.nire-eskola.net
```

Ikasleak soilik erabiliko badute makina, hurrengo lerro hau jarriko dugu:

```
BASE ou=ikasleak,ou=People,dc=nire-eskola,dc=net
```

Bestalde, ikale eta irakasleak erabiliko badute, hau jarriko dugu bere orde:

```
BASE ou=People,dc=nire-eskola,dc=net
```

Orain, **/etc/nsswitch.conf** fitxategian, hurrengo lerroak honela jarri behar dira:

```
passwd:      files ldap
group:       files ldap
shadow:     files ldap
hosts:      files dns ldap
```

Beste fitxategi hauek hola geratuko dira:

/etc/pam.d/common-account:

```
account sufficient pam_ldap.so
account required   pam_unix.so
```

/etc/pam.d/common-auth:

```
auth optional pam_group.so
auth sufficient pam_ldap.so nullok_secure
auth required pam_unix.so nullok_secure use_first_pass
```

/etc/pam.d/common-password:

```
password sufficient pam_ldap.so
password required   pam_unix.so try_first_pass nullok obscure min=4 max=8 md5
```

/etc/pam.d/common-session:

```
session sufficient pam_ldap.so
session required   pam_unix.so
session optional   pam_foreground.so
```

Orain, makina berrabiarazi, eta listo! Autentifikazioa **OpenLDAP**-en bitartez.

10. Zenbait aldaketa /etc/fstab fitxategian

Ubuntu instalatzerakoan, Windows partizio bat badago sisteman, **/etc/fstab** fitxategian jartzen da, eta horrela, makina abiarazterakoan, muntatu egiten da. Edozein erabiltzailek irakur dezake partizio hortan



dagoen edozein dokumentu. Hau ez da desiragarria. Kendu egin behar dugu partizio hau **/etc/fstab** fitxategitik. Hortarako, fitxategi hartan, honela agertzen den lerroa (Ubuntu 6.06):

```
/dev/hda1 /media/hda1 ntfs auto 0 0
```

Edo honela (Ubuntu 7.04):

```
UUID=A620EB0E20EAE3F1 /media/hda1 ntfs defaults,nls=utf,umask=007,gid=4 0 1
```

Ezabatu egingo dugu. Beste batzuk badaude, berdin.

Beste arazotxo bat ere badugu. Sistema batzuekin, erabiltzaile arruntek ezin ditzateke muntatu disketteak eta CD-ROMak.

Diskette muntatu ahal izateko, **/etc/fstab** fitxategian, **/dev/fd0** dagoen lerroan, hau jarriko dugu:

```
/dev/fd0 /media/floppy0 auto rw,user,noauto 0 0
```

CD-ROMa muntatu ahal izateko, eta suposatuz Ubuntu detektatu egin duela, hurrengo lerroa hola agertzen bada:

```
/dev/hdb /media/cdrom0 udf,iso9660 ro,noauto 0 0
```

user hitza jarri behar dugu. Honela geratuko da:

```
/dev/hdb /media/cdrom0 udf,iso9660 user,ro,noauto 0 0
```

CD-ROMa, IDE 2 kanaleko master unitatea bada, **hdb1**-ren ordean, **hdc1** jarriko luke.

CD-ROM grabagailu bat izanez gero, **ro** (read only) kendu egin behar da. Honela geratuko litzateke.

```
/dev/hdb /media/cdrom0 udf,iso9660 user,noauto 0 0
```

11. Ubuntu eta Windows

Gertatuko zaigu, Ubuntu instalatuta izatea, eta Windows berrinstalatzera behartua izatea. Windows sistemak, **MBR** delakoa bere sistemari apuntatzen jarriko du. Horrek, **GRUB**en abiarazle anitzeko menua izorratuko digu, eta ezin izango dugu Ubuntu abiarazi. Berriz lehengo egoerara itzultzeko, **MBR** delakoa gorde behar dugu lehenengo fitxategi batetan eta berriz jarri Windows instalatu ondoren. Demagun MBR-kopia izeneko fitxategi batean gordetzen dugula diskete batean. Lehenengo disketea muntatuko dugu eta gero kopiatu. Hona hemen nola:

```
sudo mount /media/floppy
sudo dd if=/dev/hda of=/media/floppy/MBR-kopia bs=512 count=1
```

Windows berrinstalatu ondoren, diskettetik kopiatu behar dugu MBRA bere tokira. Hortarako **LiveCD** batekin abiarazi behar dugu sistema. **Ubuntu** edo **Knoppix**ekin adibidez. Hau egingo dugu:

```
sudomount -t vfat /dev/fd0 /mnt
sudo dd if=/mnt/MBR-kopia of=/dev/hda bs=512 count=1
```

Listo! Berrabiarazi eta betiko menua agertuko zaigu.



12. Bitxikeriak

12.1. Firefox-en bilatzaileak

Zenbait bilatzaile daude Firefox nabigatzailearentzat. Batzuk defektuz dakaz. Guretzat ininteresgarriak diren batzuk jarriko ditugu. Besteak beste, Euskalterm-en bilaketak egitekoak zenbait hizkuntza oinarritzat hartuz. Bilatzaile hauek, **EuskalGNU** eta beste zenbait tokitan daude. **Firefox** programaren direktorioan dagoen **searchplugins** direktorioan kopiatu behar ditugu. Guk, diskette batean edo CD-ROMean izango ditugu. Beraz, hurrengo aginteak egikaritu:

```
cp /media/floppy/searchplugins/* /usr/share/firefox/searchplugins/  
chmod 0644 /usr/share/firefox/searchplugins/*
```

Hurrengo helbideetan bila ditzakezu zenbait plugin.

http://www.librezale.org/mozilla/bilaketa_pluginak.php

12.2. Firefox-i jarri proxya erabiltzaile guztientzat

Komeni da proxya jartzea ordenagailuaren erabiltzaile guztientzar, erabiltzaileek konfiguratu beharra izan ez dezaten. Hortarako, **/usr/share/firefox/defaults/profile/user.js** fitxategia sortuko dugu. Fitxategi hontan jarriko dugu konfigurazioa. Nahi badugu **IP** eta **portu** finko batetara eraman nabigatzaileak, eta gure domeinura zuzen joan daitezzen, horrela jarriko ditugu parametro hauek:

```
pref("network.proxy.http", "192.168.31.1");  
pref("network.proxy.http_port", 3128);  
pref("network.proxy.no_proxies_on", "localhost, 127.0.0.1, nire-eskola.net");  
pref("network.proxy.type", 1);
```

Aldiz, nahi badugu konfigurazioa gure web zerbitzari batetik har dezatela, horrela jar ditzakegu parametro hauek:

```
pref("network.proxy.autoconfig_url", "http://www2.nire-eskola.net/wpad/wpad.dat");  
pref("network.proxy.no_proxies_on", "localhost, 127.0.0.1, nire-eskola.net");  
pref("network.proxy.type", 2);
```

Gozatu!

12.3. Firefox-en eskolako lastermarkak pertsonalizatu

Lehen aldiz erabiltzen duenean erabiltzai batek Firefoz, eskolako web guneen lastermarkak izango ditu eskuragarri Laster-marka tresna-barran kokaturiko karpeta batean. Hortarako, **bookmarks.html** fitxategi bat sortuko dugu.

Edozein erabiltzaile bezala sartu makina batean, eta sortu karpeta laster-marka tresna-barran. Karpeta honi NIRE-ESKOLA deituko diogu. Gero, nahi ditugun web-guneetara joan, eta helbideen laster-marka gorde karpeta hortan.

